

EUROPAKO MICAT PROIEKTUAREN TAILERREAN IZAN GARA GASTEIZEN

Posted on 31/05/2023 by Naider

Category: [Albisteak](#)

Tags: [Herramientas de monitorización](#), [Medición de impactos](#), [Observatorios](#)

Joan den asteartean, maiatzaren 30ean, Gasteizko Udalak antolatutako [MICAT – Multiple Impacts Calculation Tool Proiektu Europarra](#)ri buruzko tailerrean parte hartu zuen NAIDERek. Saioaren helburua zen tresnaren helburuak aurkeztea, eta, ondoren, erabilera-kasu batzuen bidez, bertaratutako eragileek tresna ebaluatzea, erabiltzaile-esperientziaren, hizkuntzaren eta prozesuaren inguruan. Ildo horretan, jardunaldia MICAT tresnak Agenda 2030en Hiri Adierazleen Behatokiarekin dituen sinergiak berresteko aukera ere izan zen, Naiderrekin lankidetzan garatua.

